

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Nahia

Afera infernuko txikiaren buztana baino beroago zegoela, emankizuna: aizkolarien txapelketa nagusia.

Amurriora noala buruari mila buelta. Nola aurkeztu behar dut? Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa? Euskadikoa?

Heldu naiz. Txapelketa aurkezten duen kartelean Euskadiko Txapelketa dela dio, bale. Antolatzailea Euskadiko Federazioa, primeran. Bozgorailutik ari den esatariak ozen eta garbi azaldu du Euskadiko Aizkolari Txapelketa berehala jarriko dela martxan. Akabo eztabaidak. Baliteke egun Herri Kirol Federazioa dararmatenen helburua hau ez izatea baina errealitatea, egun, hauxe da.

Izan zirelako omen gara, horretan ere konforme, baina batik bat izan nahi dugulako gara. Eta gure herria ordezkatu behar badugu, bularrean nor garen laburtzen duen izena nahi dugu. Futbol jokalaria gehienek Euskal Herria hautatu dute. Hau ere errealitatea.

Egia da, era berean, “Euskadi” kontzeptua Euskal Autonomia Erki-degora mugatzea, propio edo ez, bide errazegia hartzea dela. Kontzeptuak mugak non dituen ez dakigunean sestrarako bidea besterik ez da.

Hortik aurrera, betikoa, interes politikoak txistua jo, eta batzuek eta besteek hark ezarritako doinupean egin behar dantzan. Azke-



DANI BLANCO

nean ez Iranen aurkako partidarik, ez euskal festarik, ez urtean behin halakoek merezi duten eztabaidatzeko aitzakiarik, nazioartean zer garen ikusita gehiago lortzeko modurik dagoen edo ez jakiteko, halako partidak bultzadatzeko edo urte osoan kontzientziari barealdian eusteko aitzakia diren. Ezer ez, eta gainera, konpontzeko itxurarik ez.

Bestalde, grazia egiten dit konpondu gabeko arazo terminologiko-politiko bat dugula ohartzeko, futbola tartean sartu behar izatea.

Herri kiroletan, errugbian edo samboan esate baterako, aspaldi sortu zen eztabaida hau baina ez zen horrenbesteko kamara hotsik sortu. Garrantzia txikiagoa al du arazo berak futbolariak protagonista izan edo, esate baterako, sokatirialariak izan?

Nonbait entzun dut funanbulismo politiko gehiegi egiten dugula euskaldunok. Oraingoan alanbrea kukaina haiek bezala ondo koipeztua dago. Mugitzen ez dena eroriko da, eta orain errua norena den erabakitzen beste urtebete bat ematen badugu, hurrengo Gabonetan ere ez da partidarik izango. Eta bien bitartean nazioartean denak arduratuta guri begira!

Gauza batean bederen bat etorriko zarete nirekin: jokatu behar ez zen partida bakarra Euskadi-Euskal Herria zen. ■



Grazia egiten dit konpondu
gabeko arazo terminologiko-
politiko bat dugula ohartzeko,
futbola tartean sartu behar izatea



TXANDAN

Juan Ramon Makuso

Hitzen gatibu



Ez dakit zergatik baina ez gara konturatzen. Hitz egiten dugun bakoitzean, gure leak, berbak, iltzatuak geratzen dira. Ez dut sinesten, maltzurkeria delako, betiko esamoldean liturgia: “Hitzak haizeak eramaten ditu”, eta antzekoak. Gure akatsak zuzendu nahian eraikitzen ditugu horrelakok eta beste. Bai onartzen ditut beste hauek: “Hitz egin baino lehen bi aldiz pentsa ezazu”. Eta ni orain saiatzen ari naiz, hemen, idazten ari naizen honetan, bihar ez damutzeko moduko zerbait esaten. Are gehiago. Idatzia geratuko da. Eta hemen jada

ez du balio, “nik ez nuen hori esan nahi” eta antzekoak plazartzeta. Lehenik eta behin, norberarekin zintzotasuna, eta gero, gure aldamenekoarekin. Behar bada, hau ahaztuegia daukagu. Horregatik tentuz ibili beharrean gaude, egun, hainbeste diskurtso, hainbeste hitz eta promesaren atarian gaudenean. Egia da, askotan egoten garela zain, entzun nahi ditugun hitzen esperoan, baina horrek norberaren belarriak gozatzeko baino ez du balio. Balio duena, benetan denentzat entzungarria izango den zerbait esatea da. Agian esaten ez den hori. Otegik honetaz badaki zerbait. ■